

Bokal sudurkariak tentatzen [Sur les voyelles nasales du basque]

Irantzu Epelde, Jauregi Oroitz

► **To cite this version:**

Irantzu Epelde, Jauregi Oroitz. Bokal sudurkariak tentatzen [Sur les voyelles nasales du basque]. Sagarna, A.; Lakarra, J. eta Salaberri, P. "Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina", 2008, Pamploña, Espainia. Euskaltzaindia - Académie de la langue basque, 26, 2011. <artxibo-00644030>

HAL Id: artxibo-00644030

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00644030>

Submitted on 23 Nov 2011

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

BOKAL SUDURKARIAK TENTATZEN*

IRANTZU EPELDE & OROITZ JAUREGI
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Erkidego elebidunetan bi hizkuntzek elkarri nola eragiten dioten ikusiz (gure lan honetan, hizkuntza nagusiak —frantsesak— euskarari nola eragiten duen) hizkuntza hartzailearen jokamoldeak neur ditzakegu, hark baliatzen dituen bilakaerak eta baliabideak azaltzeko. Ipar Euskal Herriko hizkera batean ikusi nahi izan dugu, oraingoan, hori nola gertatzen den. Ez da lan honen helburua Iparraldeko gaur egungo euskarari frantsesezko maileguak hartzerakoan joera nagusiak zein diren aztertzea, baina bai fonologia ezaugarri jakin baten bitartez gertatzen ari den berrikuntza bat azaltzea: frantsesak bokal ahokariez gain bokal sudurkariak ere badituenez, ikusi nahi izan dugu frantsesezko hitzak mailegatzerakoan euskaraz —lapurteraz— bokal sudurkariak gordetzen diren, edo, berezkoa zaion sistemaren arabera, bokal horiek ahokari bihurtzen dituen (kontuan izanik sudurkaritze maila bat ezinbestean izango dutela, kontsonante sudurkaridun inguruneak direnez).

1. Sarrera

Egungo euskarazko fonologia sistema bost bokal ahokarik osatzen dutela esan ohi da (Michelena 1990 [1961], Hualde 1991, Oñederra 2001 eta 2004b) zuberera ez beste gainerako euskal hizkerak kontuan hartuta, eta oro har bokal sudurkaririk ez dagoela, zubereraz izan ezik. Jakina da lehenago bazterreko euskalkietan balio fonologikoa zutela: erronkarietan gertatzen ziren bokal eta diptongo sudurkariak, eta duela zenbait mende baita bizkaiera zaharrean ere (hamaseigarren mendean dokumentatuta dago, Madariagaren *Honra de Escrivanos* horren lekuko)¹.

Gure azterketaren abiapuntua izan da mugaz bestaldeko hizkeretan bokal sudurkari berriak agertzen ari diren hipotesia, orain arte ahokari ahoskatzen ziren inguruneetan. Hipotesia da frantsesarekiko hizkuntza ukipenaren ondorioz sortu dela

* Gure esker ona azaldu nahi diegu esperimentuan parte hartu duten berriemaileei eta emaitzak papereratzekoan aholkatu eta lagundu gaituzten lankideei: Anne Bereau-Ibarra, Honorine Chipoy, Henri Duhau, Louis Ithourria, Lourdes Oñederra, Beñat Oyharçabal, Joana Pochelu eta Jasone Salaberria.

¹ Madariaga arratiarra zen, eta honela idatzi zuen arestian aipatu 1565eko lan horretan: «La N algunas veces se pronuncia escondida en las narices, como en *oracioa*, *Ardaoa*, y para denotar aquella *n* se deue sobre poner una cifra de esta manera a modo de nariz ^ ».

berrikuntza hau². Izan ere, frantsesak bere oinarrizko hots biltegiak bi bokal motak ditu, eta, ondorioz, frantses hiztunak gai dira berariaz bokal ahokariak nahiz sudurkariak erabiltzeko, egungo frantsesean azken horiek galtzeko joera dagoen arren (Durand et alii 2002-).

Azken urteetan Lapurdin egindako alor lanean belarriz hauteman duguna tresnabidez neurtu nahi izan dugu hemen, eta horretarako hiztun lapurtarren jokamoldeari erreparatu diogu. Oraingoan lapurterazko datuetara mugatzea erabaki dugu, eta Lapurdi barruan Senpereko berriemaileak hautatu ditugu. Lapurteraz bokal sudurkariak zenbateraino ebakitzen diren berez erakutsi nahi izan dugu honela, datu akustikoak erabiliz.

Gure argudioetarako kontuan hartu beharreko ezinbesteko datua da lapurterako hiztun guztiak elebidunak direla. Hiztun elebidunak —elebidun goiztiarra bada—, bere erkidegoko bi hizkuntzen sistema fonologikoak menderatzen ditu (euskara eta frantsesa, gure kasuan). Aipatu dugu frantsesak, euskarak ez bezala, bokal sudurkariak dituela sistema fonologikoan³. Beraz, elebidun goiztiarrak bokal ahokariak nahiz sudurkariak fisiologikoki ekoizten eta hautematen ikasten du. Besterik da hizkuntza bakoitzean bata edo bestea erabiltzea.

Arestian esanda bezala, orain arteko alor lanean belarriz hautemandakoa tresnabidez frogatu nahi izan dugu: hizkera lapurtar honetako hiztunak, euskaraz ari denean eta frantsesezko maileguak erabiltzen dituenen, bokal sudurkariak ekoizten ote ditu? Horrek berez bezala ekarriko luke lapurterazko euskara-frantsesa elebidun goiztiarrak [bokalak → ahokari] egiten dituen bilakabide unibertsala gainditua duela baieztatzea, eta horren arabera hiztuna gai litzateke bi bokal motak berariaz ekoizteko, fonemikoki ebakitzeko, nahiz gero zein noiz egin aukeratzeko gaitasun osoa izan.

Fonologia Naturala oinarri hartuta, aztergai izan dugun herrian —eremu osoki elebidun bati dagokio— bokal sudurkariak nahita (alegia, fonemikoki) egiteko zailtasunik ez dutela argudiatuko dugu ondorengo atalean. Jarraian, egungo hiztunen ekoizpen grabatuak erabiliz, datu akustikoen bidez ikusiko dugu lapurteraz bokal sudurkariak unitate fonemiko gisa egiten diren edo ez. Horretarako, frantsesetik

² Lan honetan ez gara arituko forma ez mailegatuen ahoskeraz, maileguen ahoskeran erabiltzen diren unitateez baizik. Guk fonologia sistemaren aukerak nola aldatzen diren ikusi nahi izan dugu hemen, [bokal → ahokari edo sudurkari] sistema baten alde lapurteraz behintzat (lehenago ez bezala, [bokal → ahokari] baitzen aukera bakarra hizkera honetan eta beste euskal hizkera gehienetan).

³ Sudurkariak frantsesaren historian izan duten bilakaeraz ik. Martinet 1965.

maileguetan gertatzen diren bokal sudurkariak (\check{V} ingurunekoak) eta euskarazko hitzetan gertatzen diren sudurkaritzeak ($\check{V}n$ ingurunekoak) akustikoki neurtuko ditugu.

2. Joera edo bilakabide natural unibertsalak gaindituz

Fonologia Naturalak eskaintzen duen marko teorikoa —batez ere bilakabideen erabilera— ezinbesteko lanabesa iruditu zaigu, bokal ahokarien eta sudurkarien aferatu muin-muinetik heltzen duelako.

Gure hizkuntza natiboaren fonologia sistema da bilakabideen sistema unibertsal baten ondorioa. Bilakabide hauek haurren hizkuntza-“xalotasun”⁴ garaian (edo, bestela esanda, hizkuntza ezagutzaririk ez duen aldirian) nabarmenen diren baldintza edo muga fonetikoak islatzen dituzte. Pixkanaka, joera edo bilakabide natural unibertsal batzuk mugatuz joaten gara eta beste batzuk gaindituz, gure sistema fonologikoa osatu arte. Ondoren Fonologia Naturelean bilakabideak nola ulertzen diren azalduko dugu.

Bilakabidea, berez, zailtasun fonetikoei erantzuten dien eragiketa mentala da. Bilakabidean hots edo hots-bilkura batek zerbaitegatik zailagoa den beste bat ordezkatzeko, hots baten ordezkari beste bat ahoskatzen da eta ordezkatzekoaren arrazoia fonetikoa da. Hizketaren izaera fisikoak bilakabideak gertarazten ditu: hizketaren ezaugarri neuro-fisiologikoen, morfologikoen⁵, mekanikoen, denborazkoen eta akustikoen. Ezaugarri hauek sortzen dituzten zailtasunen erantzun dira bilakabideak. Stamperen hitzak erabiliz (1979, 1): “A phonological process is a mental operation that applies in speech to substitute, for a class of sounds or sound sequences presenting a common difficulty to the speech capacity of the individual, an alternative class identical but lacking the difficult property”.

Nahiz eta hots ordezkatzekoak mentalak izan, teleologikoki fisikoak dira; hau da, helburu, jomuga fisikoak daukate. Beraien helburua da, hainbatetatik hainbatetan, hizketaren oharmen ezaugarriak ahalik eta eraginkorrenak izatea eta zailtasun artikulatarioa, berriz, ahalik eta txikiena. Horregatik, bilakabideak hots ordezkatzekoak dira, eta hots ordezkatzekoaren azalpena sinkronikoki fonetikak eman dezake, fonetikoki azal daiteke.

Bilakabideekin jarraituz, esan behar da izan daitezkeela ingurunedunak edo ingurunez landakoak. Hau da, hots ordezkatzekoan inguruneak zeresana badu, orduan

⁴ *Language-innocent state* litzateke ingelesezko terminoa, hau da, haurrak hizkuntzarekin eskarmenturik ez dueneko garaia.

⁵ Zentzu ez-gramatikalean.

inguruneduna izango da (guk lan honetan ez ditugu mota honetakoak azalduko). Aldiz, bilakabidea ingurunez landakoa izango da inguruko hotsen eraginik eta erreferentziarik gabe gertatzen denean, ingurune gabeko eremuan gertatzen denean, hau da, gure hotsen memorian. Bilakabide ingurunez landakoen emaitza dena delako hizkuntzaren hots-unitateak edo fonemak dira. Hau da, [bokalak → ahokari] bilakabidean ez dago ingurunerik bilakabide hori eragiten duenik. Fonologia Naturalaren ekarpena izan da oinarritzko unitateen zio fonetikoak euskarri izatea, edo, beste era batera esanda, fonema sistemaren edo paradigmaren arrazoi fonetikoak bilatzea, eta arrazoi fonetikoan oinarritzea.

Gure gaia muin-muinetik ukitzen duen bilakabide batek bokal guztiak ahokari egiten ditu. Oharmenaren eta ahoskagarritasunaren aldetik hoherena bokalak ahokari izatea da. Hizketarako biriketarik datorren airea ahotik kanporatzea errazagoa da sudurretik ere kanporatzea baino, sudurretik kanporatzeak zailtasuna baitakar. Gertaera hau unibertsala da. Ahosabai bigunak eta haren luzakin haragitsuak, aho-gingilak, sudurrerako bidea irekita uzten dutenean ahotsa ateratzen bada orduan hots sudurkariak ekoizten dira (Oñederra 2004b: 142). Hona hemen Ohala & Ohalak hots sudurkariak fisikoki nola gertatzen diren adierazteko ematen duten azalpena:

Physiologically a nasal speech sound is quite simple: it just involves lowering of the soft palate to a degree sufficient to couple the oral and nasal cavities acoustically. With a concomitant oral closure, a nasal consonant is produced; without it, a nasal vowel. Nevertheless, this simple gesture has major and complex phonological consequences due to the interconnectedness of all parts of the vocal tract. (Ohala & Ohala 1993: 225)

Egileek aitortzen dute hots sudurkaria ekoiztea sinplea dela; hala ere, azalpen fisiologikoa sinplea izan arren, bokal sudurkariak ekoiztea bokal ahokariak ekoiztea baino konplexuagoa da fisikoki. Ahotsa sudurretik kanporatzeko aho-gingilak lan egin behar du sudurbide irekia bokaltasunarekin batera gerta dadin. Zailtasun hori gainditzeak ematen dio gaitasuna hiztunari bokal sudurkariak nahita ebakitzeko⁶.

Egungo euskaraz, oro har, bokal guztiak ahokari egiten dituen bilakabidea indarrean dago eta bokalak ahokariak ditugu euskaraz (zubereraz izan ezik). Frantsesak zailtasun fonetiko hori gainditua duenez, bokal ahokariez gain bokal sudurkariak ere baditu fonemikoki. Bilakabideari amore emateak esan nahi du paradigmaren unitate gehiago edukitzea. Frantsesa ikasi behar duen haur batek [bokal → ahokari] bilakabidea

⁶ Romaine-k baieztatzen du hiztunek aski aise alda dezaketela, esate baterako, beraien pragmatika, baina nahita egindako aldaketak fonetikan sartzea nekezago dela (1996: 111). Hiztunek beraien hizkeran nahita egiten dituzten aldaketez, ik. Thomason 2007.

gainditu beharko du, bilakabide hori egokitu egin beharko du. Bokal sudurkariak egiteak sortarazten duen zailtasuna da gainditu beharko duena eta bokalak —ahokariak nahiz sudurkariak— nahita ekoizten eta erabiltzen ikasi beharko du. Behin zailtasun hori gaindituta, frantses hiztunak gai dira berariaz bokal ahokariak nahiz sudurkariak erabiltzeko. Gauza bera esan daiteke Iparraldeko elebidun goiztiarrez ere.

Hizketan hotsak bata bestarekin kateatzean nahitaez koartikulazioa (ing. *coarticulation*) gertatzen da, hau da, hotsak batak bestarekin kateatzea eta askotan ezaugarriak teoriarik ditugunak bezain finko eta bereziak ez izatea. Halaxe gertatzen da sudurkaritzearekin ere:

A nasal consonant is produced with a velopharyngeal opening but with a complete closure of the main vocal tract at some point within the oral cavity. (...) When a nasal consonant occurs adjacent to a vowel, there is usually some opening of the velopharyngeal port and hence some nasalization in at least part of the vowel adjacent to a consonant. (Stevens, 1998: 305)

Izan ere, bokala ingurune sudurkarian sudurkaritu egin ohi da; neurri handiagoan edo txikiagoan, baina sudurkaritzea gertatzen da. Kasu honetan hiztunak ez du nahita egiten sudurkaritzea, inguruneak eraginda baizik, eta bere inbentarioan ez badago bokal sudurkaririk, ez da gai ez hots hori hautemateko, ezta nahita egiteko ere, baina ekoitzi egiten du, inguruneak eraginda. Orduan sudurkaritasun *alofonikoa* dela esaten da. Hurbilketa honetako azterketa akustikoan kasu horiek ere neurtu ditugu, ikusteko, alde batetik, euskarazko hitzetan sudurkaritzea gertatzen ote den, eta, bestetik, bi unitate (bokala eta sudurkaria) edo bakarra ekoizten ote den.

Sudurkaritze testuinguruei begiratzen badiegu, bokalaren sudurkaritasuna gertatzeko ingurune errazena da silaba amaieran kontsonante sudurkaria dagoenean (berezi hitzaren azken silaba bada) eta kontsonante sudurkari horren aurretik bokala dagoenean.⁷ Coda (silaba-azkeneko kontsonanteak edo kontsonanteek osatzen duten silaba) ahulagoa da ekina baino.

3. Esperimentua

⁷ Dirudenez, gaztelaniaz sudurkaritze mota horretan bokala sudurkariago izan ohi da adibidez frantsesez baino. Frantsesezko bokal sistemak bokal ahokariak eta sudurkariak ditu eta gaztelaniaz bokal ahokariak bakarrik. Frantsesez sintagmatikoki gertatzen den sudurkaritze bilakabidean bi bokal mota horiek nolabait bereizi egiten dira, eta beste zenbait hizkuntzatan gertatzen den sudurkaritze maila baino apalagoa antzeman daiteke.

Ikerketa akustikoa egiteko 2 hiztun hautatu ditugu⁸, biak Senperekoak eta adinekoak (80 eta 89 urte)⁹. Grabaketak hiztunen etxeetan egin genituen 2008ko udan, Sony MD Walkman eta Sony ECM-717 mikrofono aparailuekin. Grabatutako seinalea ordenagailura M-Audio-ren bidez pasatu eta gero, neurketak PRAAT programarekin egin ditugu. Azterketa akustikoa egiteko hots uhina eta espektrograma erabili ditugu.

Galdeketak egiteko, bina hitz zerrenda aurkeztu genien hiztunei: i) zerrenda bana frantsesezko hamar hitzekin, horiek euskaraz eman zitzaten (euskaraz ohikoak dira hitz horiek guztiak), eta ii) euskarazko 10 hitzeko zerrenda bana, horiek ozenki esan zitzaten. Euskarazko hitz guztietan (C)VN.¹⁰ bilkura lehenengo silaban dago, ez dago bat ere hitz amaieran duenik. Frantsesetiko hitzetan ere agertzen da bokal sudurkaria lehenengo silaban, adibidez *ambulance*, *invitation* eta *symphonie* hitzetan; amaieran dutenek askotan beste kontsonante bat ere badute jarraian, adibidez *science*, *lampe*, *pompe*, *bombe*. Sudurkaria bukaera absolutuan ez zegoenean zer zegoen ikusi nahi genuen honela. Hurrengo galdeketa eta neurketetarako utziko dugu aldaera hauek guztiak kontuan hartzea.

Kontrol hitzak ere aztertu ditugu, eta horiek lortzeko hizketa librea erabili dugu. Aztertu beharreko hitzak grabatu ondoren, hiztunen hizketaldi libreak grabatu genituen, eta bat-bateko molde horretatik hautatu dira kontrol hitzak. Beraz, hiztun bakoitzeko 20 item izango ditugu, guztira 40 item, eta horien ondoan kontrol hitzak (5 hiztun bakoitzeko).

Frantsesetiko maileguetan bokal sudurkariak badaudela ikusi dugunez, horien ezaugarri akustikoak aztertu eta neurtu ditugu, frantsesezko bokal sudurkariak euskarazko jardunean nola ekoizten diren ikusteko. Frantsesez eta beste zenbait hizkuntzatan (portugesez, kasu) (C)VN. testuinguruan kontsonante sudurkaria aurreko bokala sudurkaritu ondoren desagertu egiten da. Gertaera hori diakronikoki eta etengabe gertatzeak bokal sudurkariak sortzea ekarri du.

⁸ Hirugarren hiztun bat ere baliatu dugu datuak egiaztzeko, baina haren ekoizpenen uhinik ez dugu erabili.

⁹ Galdeketa osoagoa izateko berriemaile gehiago eta adinean aniztasun handiagoa beharko litzateke, baina mementoan hurbilketa bat egin asmo genuen esperimentu honekin. Era berean, sudurkaritasuna neurtzeko sudurretik ateratzen den airea («nasal flow») neurtzea erabat lagungarria izango litzateke, baina horretarako Fonetika Laborategian gauzatu beharko litzateke datu bilketa (hiztunen adina kontuan hartuta ez da erraza), eta, horrez gain, sudurretik datorren airea neurtzeko aparailu berezi bat beharko litzateke (EHUko Letren Fakultateko Fonetika Laborategian oraingoz ez da halako tresnarik).


¹⁰ Silaba bukaerako kontsonante sudurkaria adierazi nahi dugu N. honekin.

Euskarazko hitzetan, gainerako euskaretan bezala ingurune sudurkarian gertatzen diren sudurkaritzeak izango dira aztergaia, eta bi unitate (bokala eta kontsonante sudurkaria) edo bakarra (bokal sudurkari edo sudurkaritua) egiten den ikusiko dugu.

4. Emaizak

Ondoren gure datuetan oinarritutako emaitzak aurkeztuko ditugu. Laburki esateko, 20 kasuetatik 13tan, hau da, %65etan bokal sudurkariak ekoitzi dituzte hiztunek. Ikus ditzagun xehetasunak:

4.1. Euskarazko hogeit hamar itemei dagokienez, ia kasu guztietan bi unitate gertatzen zirela erakutsi dute espektrogramek: bokala (sudurkaritze puntu batekin, hori handiagoa edo txikiagoa izan) eta kontsonante sudurkaria. Adibidez: *kanbiatu*, *kankaila* ‘kankailua’, *kanpotiarra*, *ganbara* ‘gela’, *kanta*. Batzuetan lehen silabako CVN. testuinguruan bi unitate osatzen zuten nabarmen lehenengo *a* bokalak eta haren segidan datorren kontsonante sudurkariak. Gauza bera gainerako bokalez osatutako adibideetan ere. Euskarazko hitzak aztertzean, hortaz, eta teoriak esaten duena baieztatuz, bokalen sudurkaritzea antzeman daiteke ia kasu guztietan, baina gehienetan bi unitate —bokala eta sudurkaria— garbi antzematen dira espektrograman. Horren garbi antzematen ez denean, bokala sudurkaritu egiten dela esan daiteke.¹¹



1. irudia: Euskarazko *konpota* hitzaren espektrograma irudia.

4.2. Frantsesezko 20 itemak euskaraz esan ohi dituzten bezala ahoskatzeko eskatzerako, jakitun ginen galdetegian hitzak frantsesez idatzita ikusteak zekarren alderdi txarraz.


¹¹ Azterketa sakonagoak egin beharko lirateke euskarazko hitzen gainean.

Dena dela, hizketa librean egiaztatu ahal izan dugu adibideon ohiko ahoskera, eta bat zetorren hitz zerrenden grabazioetan jasotakoarekin.


4.2.1. Kontuan hartu behar dugu erreferentziatzat hartu ditugun frantsesezko hiru bokal sudurkariak zein izan diren: [ã], [ẽ] eta [õ].¹²

[ã] ahoskatu dituzte *banka*¹³ ‘bankua’ (fr. *banque*), *antretenu* ‘mantendu, zaindu’ (fr. *entretenir*) edo *tanzionia* ‘tentsioa’ (fr. *tension*) bezalako hitzak, eta uhinetan unitate bakar moduan agertzen dira.

[ẽ] sudurkariak ebaki dituzte beste batzuk, adibidez *enternet* (fr. *internet*), *enfekzione* ‘infekzioa’ (fr. *infection*) edo *zenfonia* ‘sinfonia’ (fr. *symphonie*) (ik. 2. eta 3. irudiak).



2. irudia: *Enfekzione* maileguaren espektrograma irudia (fr. *infection*).



3. irudia: *Zenfonia* maileguaren espektrograma irudia (fr. *symphonie*).


¹² [œ] ez dugu kontuan hartu gure azterketan.

¹³ Frantsesezko maileguak aipatzean transkripzio ortografikoa erabiliko dugu. Ondoren jarriko ditugu euskara batuko ordaina eta mailegua frantsesez.

Aldiz, zenbait hitzekin tarteko bilakaera bat ikusi dugu. Kasu honetan, adibidez, bokalaren sudurkaritzea ez da bururaino eraman: *zendikata* ‘sindikatu’ (fr. *syndicat*) ahoskatu du berriemaileak baina lehen silabako bokala sudurkaritzera iritsi gabe, hau da, bi unitate gordez. Frantsesezko *impôt* ‘zerga’ hitzean, ordea, *in-* espero genuen hitz hasieran¹⁴, baina berriemaileak *enposak* ahoskatu du lehen silaban frantsesezko [ɛ̃] bokal sudurkaria gordez.


Azkenik, [ɥ] ebakera izan da, esaterako, honako adibide honetan: *ponpierak* ‘suhiltzaileak’ (fr. *pompier*).

4.2.2. Azkenik, bi unitate eginez [bokala (neurri handiagoan edo txikiagoan sudurkaritua) + kontsonante sudurkaria] ebaki dituzte, uhin espektrografikoen arabera, beste zenbait adibide (20tik 7): *lanpa* ‘lanpara’ (fr. *lampe*), *anpronta* ‘mailegua’ (fr. *emprunt*) hitzeko lehen silaba, *manta* ‘menta’ (fr. *menthe*) (ik. 4. irudia), *zantimetra* ‘zentimetroa’ (fr. *centimètre*), *intresak* ‘interesak’ (fr. *intérêt*), *bonba* ‘lehergailua’ (fr. *bombe*) eta *arrunda* ‘biribila’ (fr. *rond*). Azken adibidean, gainera, ikus daiteke nola egokitu den mailegua euskararen arauen arabera, hitz hasierako bokal protesiaz gain ekialdeko hizkeretan ohikoa den bilakaera bat gertatu baita: *o* > *u* ixtea kontsonante sudurkariaren aurretik. Mailegu egokitzearen aldetik berezia da *intresak* ere (fr. *intérêt*) (ik. 5. irudia), *impôt* hitzean bezala euskaraz kontsonante txistukaria agerian duelako (mailegu zaharrak dira bata zein bestea).



4. irudia: *Manta* ‘menta’ maileguaren espektrograma irudia (fr. *menthe*).

¹⁴ *Inposak* da lapurteraz (hirugarren silabako txistukaria agerian gelditzen da mailegu zaharretan bezala).



5. irudia: *Intresak* ‘interesak’ maileguaren espektrograma irudia.

Bestalde, aipatu behar da aldakortasuna oso kontuan hartu beharreko datua dela, hiztun beraren barne aldakortasuna zenbaitetan —ez baita ezinezkoa hiztun batek hitz bera euskal sistemaren arabera ebakitzea memento batean eta frantses sistemaren arabera geroago, edo alderantziz— eta hiztun batetik bestera ere gertatzen direla halakoak, nahiz eta herri berekoak eta adintsukoak izan. Hala, *ānvelopa* erdiko bokal ireki sudurkariarekin eta igurzkari ezpainhorzkari ahostunarekin ahoskatu zuen gure berriemaileak, baina beste hiztun batzuen ahotik entzun izan dugu euskararen arauen arabera egokituta mailegu hori: *enbelopa*, aitzineko bokal erdi-irekiarekin, igurzkari ezpainhorzkari ahostuna ahoskabe bilakatuz eta are *emelopa* ebakiz, askotan sudurkariak asimilatzen duelako ondoko herskaria <mb> eta <nd> taldeetan: *lemiziko* ‘lehenbiziko’, *demora* ‘denbora’, *zomait* ‘zenbait’, *zomat* ‘zenbat’, *amertze* ‘hainbertze’... *Imitorio* ‘inbentarioa’ mailegu zaharrea ere aurki dezakegu *nb > m* idazle klasikoetan (ik. *OEH*, *imitorio* sarrera), baina gaurko joera nagusia frantsesez bezala ahoskatzea da: *envantera* (fr. *inventaire*) ahoskatu du gure berriemaileak.

Maileguaren ahoskera lotuta dago hura euskal sistema fonologikoaren bidez iragazi izanarekin edo ez izanarekin. Oro har, mailegu zaharretan euskararen fonologia arauen arabera egokitu dira hotsak, *intresak* mailegu zaharrea¹⁵ ikusi dugun bezala. *Linja* (fr. *linge*) eta *xinplea* (fr. *simple*) ildo bereko adibideak izango lirateke (ez dira sudurkaritzen eta unitate bakarretan biltzen). Bestalde, gaineratu daiteke joera zaharra izan daitekeela lehenengo silabako bokala, hau da, frantsesezko [ɛ̃] euskaraz [i] goiko aitzineko bokal gisa hautematea.

5. Hizkuntza ukipenaren ondorioak Iparraldeko ahoskeran

¹⁵ XVI-XVII. mendeetan *interes* erabiltzen zen Iparraldean, baina XVIII.etik aurrera *intres* indar handiagoz zabaldu da (ik. *OEH*, *interes* sarrera).

Ukipen egoeretan gertatzen diren bilakaerak aztertzeko egoera ona dugu Euskal Herrian, bai Hegoaldean eta bai Iparraldean. Lehenean, gaztelaniazko maileguak euskarak fonologikoki nola egokitzen dituen ikertu izan dute zenbait euskalarik —adibidez, Hualde (2000) eta Oñederra (agertzeko)—, eta euskarak Hegoaldeko elebidunen gaztelaniazko fonologian nolako eragina duen ere aztertu izan da (Echaide 1966, Oñederra 2001 eta 2004a). Gai honen inguruan ikerketa gutxi egin izan da Iparraldeko hizkerari dagokienez (Epelde, agertzeko).

Guk frantsesa-euskara ukipen egoera hartu dugu lan honetan, eta eraginaren nondik norakoak ikusteko muga inguruko hizkera bat hautatu dugu. Frantsesezko hitz maileguak oso ugariak dira Senpereko mintzoan (eta Iparraldean, oro har). Hiztegian arreta jarriz gero, ikusiko dugu maileguak egokitzerakoan hiztun tradizionalak segitzen zituzten urratsak askotan ez dituztela betetzen gaurkoek, eta mailegu horiek euskal arauen arabera egokitu ordez bere horretan uzten dituztela maiz. Bilakabideen bidez honi zentzu fonologikoa ematen saiatu gara. Askotan frantsesezko maileguak aurkitzen ditugu euskararen hiztegian dagoeneko baziren hitzen ordainetan. Baina hizkuntza batek besteari —nagusiak pekoari— pasatzen diona lexikoa baino gehiago da. Hemen aztergai dugun fonologiazko berrikuntza oraintxe gertatzen ari da, aldaketa «bizia» da (Labov 2001: 498-500), eta hizkuntza aldaketa egonkor baten sorburua izan daiteke.

Hizkuntza batetik bestera zer iragaten den eta zer ez asko eztabaidatu izan da hizkuntza kontaktuaren gaineko literaturan. Aditu batzuen ustez (Weinreich 1974, Givón 1979, Bickerton 1981 eta Silva-Corvalán 1992, beste batzuen artean), hizkuntza hartzailean gertatzen diren aldaketek azaleko egiturari eragiten diote soilik, ez dira iristen barne egiturara. Guri dagokigun adibide bat jartzeagatik, eman dezagun Iparraldean dardarkariarekin gertatzen dena: berezko ebakera hobikariaren ordez ebakera ubularra nagusitu da ia erabat gaur egungo hiztun elebidunen artean euskarazko hitzetan ere (adin handiko zenbait hiztunetan ez beste guztietan), eta beraz lerratze nabarmena izan da hor, jadanik euskararen hots sisteman bazen hots bati zuzenean eragiten diona. Ahoskera hori ubularrera lerratzearekin batera hots bat (dardarkari hobikaria) “galdu” da Iparraldeko euskaran (esan bezala, adin handiko hiztun batzuetan izan ezik), eta beste bat “irabazi” (dardarkari ubularra). Sapir-en tesia da (1921) muturreko egoera soziolinguistikoko berezietan ez bada, hizkuntza batetik bestera pasatzen dena azalekoa izaten dela (hitzen ordena, mailegu lexikoak, kalkoak eta abar), eta hizkuntza hartzaileak hura egokitzekeo baliabideak moldatzen dituela.

Ordea, esperimentu honen emaitzek erakutsi digutenaren arabera bokal sudurkariak horko euskararen hots sisteman sartzen ari badira¹⁶, orduan aldaketa beste norabide batean gertatzen ariko litzateke, orain arteko euskararen hots biltegian ez zeuden fonema berriak *sartzen* ariko liratekeenez gero.

Jakinean egonik ere lan hauetan maileguren egokitzea eta euskarazko hitzen ahoskera bereizi beharreko bi kasu direla, lehenari erreparatuz ikas genezake fonologia sistemaren aukerak nola aldatzen ari diren, zer bilakaeraren alde egiten duen euskarak hots arrotzak ebaki behar dituenen, eta zenbateraino moldatzen dituen bere arau propioen arabera. Uste dugu Heinek eta Kutevak gramatika kategorietarako azaldu izan duten fenomenoaren antzekoa gerta litekeela hemen fonologiaren alorrean:

Contact situations, except for cases of attrition, tend to lead not to the reduction and loss of existing grammatical categories, but rather to diversification and to the creation of new grammatical categories in one language on the model of another language. (Heine & Kuteva 2005: 258)

Era berriko maileguren ugaltzeak hots batzuk ahultzea ekar dezake, baina berez eragin fonologikoak hotsak desagerrarazi baino gehiago hotsak *sarrarazi* egiten ditu. Hotsak desagertzen baino gehiago berriak agertzen ari dira aztergai dugun hizkeran. Elementu berria da oraingo hiztun guztiak elebidunak direla eta txikitatik ikasi dutela frantsesa; ondorioz, erabateko gaitasuna dute frantsesetikako lexikoiak eskatu hotsak ebakitzeko.

6. Ondorioak

Hitz eta elementu arrotzak ahoskatzeko garaian ikertzen badugu hizkuntza hartzaileek nola jokatu ohi duten, ikusiko dugu hitzok mailegatzeak haien nolabaiteko egokitze fonetikoak ekartzen duela, hizkuntza edozein dela ere. Beti egongo dira hots arrotzak edo hartuko dituen hizkuntzak ez dituen bestelako berezitasunak. Kontua da nola gertatzen den hori. Izan ere, berrikuntzak hartzerakoan erabakigarria izan daiteke peko hizkuntzak —gure kasuan, euskara lapurtarrak— nagusiaren (frantsesaren) aldean daukan indar eskasia. Sapir-ek (1921) erakutsi zuen zein uzkur ager daitekeen hizkuntza bat maileguak fonetikoki itxuraldatzeko garaian, baina frantsesetik ingelesera mailegatutako adibide baten bidez: *camouflage*. Azaldu zuen izen hori ingeles ahoskera arauen arabera ebakitzen dela ingelesez (hitz hasierako herskari ahoskabea hasperenez

¹⁶ Zehaztu behar da maileguetan ikusten den gertakaria dela.

ahoskatuz, eta abar), nahiz eta frantsesean izan jatorria. Baina, jakina, hizkuntza hartzailearen egoera eta indarra euskararena ez bezalakoa da kasu horretan. Nola gertatzen da euskara lapurtarrean?

Oso aurrean izan behar dugu zenbateraino aldatu den aztergai dugun erkidegoko egoera soziolinguistikoa eta zein den oraingo elementu berria: elebidun goiztiarren erabateko ugaltzea. Bi hizkuntzak batera ikasten dituenak bi mintzaira horiek eskatzen dituen bilakabideak gainditu beharko ditu, bai frantsesarenak eta bai euskararenak. Euskarak frantsesak baino bilakabide oinarrikoagoak ditu; beste hitz batzuekin esanda, frantsesak baino unitate gutxiago ditu hots biltegian. Bi hizkuntzak batera ikastean — areago oraindik lehendabizi euskara eta gero frantsesa ikasten duenak— frantsesak gainditu dituen euskararen bilakabideak gainditzeaz gain frantsesarenak ere gainditu behar ditu, beharrezkoa du aldaketa hori, frantsesetikako hitz maileguak egoki ahoskatuko baditu. Horrek eragiten du nahitaez aldatzea beste hizkuntzaren (euskararen) sistema fonologikoa (ik. Oñederra, agertzeko).

Berrikuntzek hitzunen solasean zenbaterainoko indarra eta hedadura hartzen duten beste gai bat da, hizkuntza jarrerekin-eta lotuta dagoena, baina maileguak jatorrizko hizkuntzaren ahoskera arauen arabera ahoskatzeko berrikuntza automatikoki hartuko du hiztunak. Berrikuntza horiek pisu handikoak izan daitezke, euskararen igurzkari eta afrikatuen ezaugarriak aldatzerainokoak. Eman dezagun adibide bat: euskararen ezaugarrietako bat da [trabari → ahoskabe] aukera. Ordea, sudurkariekin bezalatsu, ikusten dugu frantsesaren eraginez maileguetan igurzkari ahostunak ere badirela.¹⁷ Fonologiazko berrikuntza hori hiztegian erabat zabal liteke hizkuntzaren erabilerak horretara eramanez gero eta oraingo maileguak lexikalki ahala.

Era berean, orain arteko euskal hizkera gehien ezaugarria bada bost unitate bokaliko izatea eta orain maileguen bitartez seigarren bat sartzen ari dela —edo sartu dela— frogatuko bagenu (*ü* [y]), baieztatuko litzateke frantsesaren eraginez hor ere euskararen berezko ezaugarri bat (bost bokal izatea) aldatu den hipotesia. Mailegurik izango ez balitz hori ez litzateke antzemango, hiztunak ez lukeelako hots horiek ekoitzi beharrik izango. Baina maileguak hor dituen eta beharrezko dituen agerian gelditzen dira hots berri horiek. Noiz gertatzen da, ordea, hori? Badirudi elebidunetan nerabezaroa mugarririk dela bi hizkuntzez osoki jabetzeko prozesuan:

¹⁷ Hitzunen jardun libreak entzunez iritsi gara ondorio honetara, ez dugu hori frogatzeko analisi zehatzik ez espektrografikorik egin.

Gradually we constrain those processes which are not also applicable in the mature language (...). From adolescence usually there is little further change, and the residual processes have become the limits of our phonological universe, governing our pronunciation and perception even of foreign, invented, and spoonerized words, imposing a 'substratum' accent on languages we subsequently learn, and labeling us as to national, regional, and social origins. (Donegan & Stampe 1979: 126-127)

Gaur egun, ama hizkuntza euskara duen edozein hiztun frantsesaz ere nerabearoa baino lehen jabetzen da Iparraldean, Hegoaldean gaztelaniarekin gertatzen den bezala. Haurrak txikitatik ikasten du frantseseko hotsak fisikoki ekoizten, hots horien tasun konbinaketaz jabetu da hasieratik eta ez dauka haien ekoizteko eragozpenik. Hala esplika liteke, gure ustez, bokal sudurkarien berrikuntza hau ere.

7. Bibliografia

- Bickerton, D., 1981, *Roots of Language*, Ann Arbor: Karoma.
- Donegan, P., 1985, *On the Natural Phonology of Vowels*, New York: Garland.
- Donegan, P. & Stampe, D., 1979, "The Study of Natural Phonology", *Current Approaches to Phonological Theory*, Daniel A. Dinnsen (arg.), Bloomington: Indiana University Press, 126-173. or.
- Durand, J. & Laks, B. & Lyche, C., 2002-, *Phonologie du français contemporain: usages, variétés et structure (PFC)*. [Interneten: <http://www.projet-pfc.net>].
- Echaide, A. M., 1966, "Castellano y vasco en contacto: tendencias fonéticas vascas en el castellano de los vascohablantes bilingües", *Boletín de la Real Academia Española* 46, 513-523.
- Epelde, I., agertzeko, "Impacto fonológico del contacto entre lenguas: francés y vasco en contacto", AESLA-ren 26. Biltzarrean aurkeztutako komunikazioa, Almeriako Unibertsitatea, 2008ko apirilaren 3a.
- Givón, T., 1979, "Prolegomena to any sane creology", *Readings in Creole Studies*, Ian F. Hancock (arg.), Ghent: Story Scientia.
- Heine, B. & Kuteva, T., 2005, *Language Contact and Grammatical Change*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Hualde, J. I., 1991, *Basque phonology*, London: Routledge.
- _____, 2000, "Patterns of correspondence in the adaptation of Spanish borrowings in Basque". *General Session and Parasession on Loan Word Phenomena: Proceedings of Twenty-Fifth Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, 1999ko otsailaren 12-15, Steve S. Chang, Lily Liaw & Josef Ruppenhofer (arg.), Berkeley: Berkeley Linguistic Society, 348-358. or.
- Huffman, M. & R. Krakow (arg.), 1993, *Nasals, Nasalization, and the Velum*, San Diego / London: Academic Press.
- Labov, W., 2001, *Principles of Linguistic Change*, 2. liburukia: *Social Factors*. Oxford: Blackwell.
- Madariaga, P., 1565, *Honra de Escrivanos*. Valencia.
- Martinet, A., 1965, "Les voyelles nasales du français", *La linguistique*, 2. fasz., 117-122.
- Michelena, L. 1990 [1961], *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Ohala, J. & M. Ohala, 1993, "The Phonetics of Nasal Phonology: Theorems and Data", In Huffman, M. / R. Krakow (arg.), 1993, 225-244. or.

- Oñederra, M. L., 2001, "La cabeza es para andar: sobre el español hablado en zona vasca", *Actas del V Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española*, Madrid: Gredos, 263-273. or.
- _____, 2003, "Palatalization revisited: bustidura adierazgarriaren estatusaz ohar batzuk", In X. Artiagoitia & P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 499-511 (ASJU-ren gehigarriak XLIV).
- _____, 2004a, "El español en contacto con otras lenguas: español-vasco", In *Historia de la Lengua Española*. Barcelona: Ariel, 1103-1115.
- _____, 2004b, *Fonetika-fonologia hitzez hitz*, Bilbo: EHU.
- _____, agertzeko, "Early bilingualism as a source of morphological rules for the adaptation of loanwords: Spanish loanwords in Basque", Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarrean aurkeztutako komunikazioa (Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 8-11).
- Romaine, S., 1996, "The status of sociological models and categories in explaining language variation", *Toward a critical sociolinguistics*, Rajendra Singh (arg.), Amsterdam: John Benjamins.
- Sapir, E., 1921, *Language: An Introduction to the Study of Speech*, New York: Harcourt Brace Jovanovich.
- Silva-Corvalán, C., 1992, "On the permeability of grammars: Evidence from Spanish and English contact", *Linguistic Perspectives on the Romance Languages*, William Sabih & Marianne Mithun & Giorgio Perissinotto & Eduardo Raposo (arg.), Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins, 19-43. or.
- Stampe, D., 1979, *A Dissertation on Natural Phonology*, New York: Garland Publishing Co.
- Stevens, K.N., 1998, *Acoustic Phonetics*, Cambridge / London: MIT.
- Thomason, S., 2007, "Language Contact and Deliberate Change", *Journal of Language Contact* 1: 41-62.
- Weinreich, U., 1974, *Languages in Contact: Problems and Findings*, The Hague: Mouton [1. argitalpena: Linguistic Circle of New York, 1953].